



AREATZAKO UDALEKO DIRULAGUNTZAK AUTONOMOEN ETA ENPRESA TXIKIEN INBERTSIOAK BULTZATZEKO COVID-19-AK SORTUTAKO ALARMA-EGOERAREN ONDORIOZ

SUBVENCIONES DEL AYUNTAMIENTO DE AREATZA PARA IMPULSAR LAS INVERSIONES DE AUTÓNOMOS/AS Y PEQUEÑAS EMPRESAS POR LA SITUACIÓN DE ALARMA CAUSADA POR EL COVID-19

HITZAURREA

COVID-19aren hedapen azkarraren ondorioz aurrekaririk gabeko osasun-alertako egoera sortzen ari da, eta eragindako herritarren kopuru handia etengabe ari da hedatzen. Gaixotasunaren hedapenaren aurkako borroka etengabea da, pertsonen osasunari nabarmen eragiten baitio.

Lehentasuna COVID-19aren hedapena mugatzea eta pertsonen osasuna zaintzea bada ere, krisi honen ondorioak osasun-arlokoak ez diren beste esparru batzuetan eragina izaten ari dira.

Epidemiari eusteko hasierako faseak igaro ondoren, jarduera-sektoreak pixkanaka abian jartzeari ekingo zaio.

COVID-19 pandemiak eragin handia izan du enpresa txikien jardueran. Hori dela eta, Areatzako Udalak autonomoentzako eta enpresa txikientzako laguntzak jarri ditu martxan, batez ere funtzionamendugastuak konpentsatzeko.

Egoera hori dela eta, instalazioak nabarmen egokitu beharko dira, osasun-kontrolerako neurriak hartu beharko dira, segurtasun-protokoloak ezarri beharko dira osasun-erregulazio berrietara egokitzeko eta negozioa sare sozialetan kokatzeko, eta

PREÁMBULO

La rápida propagación del COVID-19 está generando una situación de alerta sanitaria sin precedentes, con un número elevado de ciudadanos/as afectados/as que está derivando en una incesante lucha contra su propagación, en tanto en cuanto afecta de manera relevante a la salud de las personas.

Si bien la prioridad se centra en limitar la propagación del COVID-19 y en la salud de personas, las consecuencias de esta crisis están teniendo incidencia en otros ámbitos no estrictamente sanitarios.

Una vez que han transcurrido las fases de contención de la epidemia se procederá al inicio progresivo de los diferentes sectores de actividad.

La pandemia COVID-19 ha supuesto un impacto muy importante en la actividad de las pequeñas empresas. Por ello, el Ayuntamiento de Areatza ha puesto en marcha ayudas para el colectivo de personas autónomas y pequeñas empresas, destinadas fundamentalmente a la compensación de los gastos de funcionamiento.

Esta situación hará necesaria la adaptación de manera importante de las instalaciones, medidas de control sanitario, la implantación de protocolos de seguridad para adecuarse a las nuevas regulaciones sanitarias y el posicionamiento del negocio en redes sociales



errealitate berrira egokitutako publizitate-euskarriak garatu beharko dira (negozio segurua, etab.), bezeroen behar berriei aurre egin ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, Udalak beharrezkotzat jotzen du honako laguntza hauek ezartzea:

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Helburua.

Laguntzen bidez, Areatzako autonomoei eta enpresa txikiei lagundu nahi zaie alarma-egoera indarrean jartzearen ondorioz pairatzen dituzten zailtasunak gainditzeko.

2. artikulua.- Erakunde onuradunak.

Laguntzak jaso ahal izango dituzte alarma-egoera indarrean jarri zen egunean baldintza hauek betetzen zituzten pertsona autonomoek eta enpresa txikiek:

- a) Jarduera Areatzan egitea eta garatzea.
- b) Jarduera ostalaritzan eta txikizkako merkataritzan egitea.

Ezingo dira onuradun izan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan zerrendatutako egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak.

3. artikulua.- Diruz lagun daitezkeen egitateak.

a) COVID-19 pandemiaren ondorioz sortutako beharren ondoriozko inbertsio materialak.

- Orientazio gisa, manparak, gel hidroalkoholikoak, banatzaileak, termometro digitalak, terrazetarako, altzarietarako eta abarretarako elementu

así como el desarrollo soportes publicitarios adaptados a la nueva realidad (negocio seguro, etc.) para poder hacer frente a las nuevas necesidades de los clientes.

Por todo ello el Ayuntamiento considera necesario establecer las siguientes ayudas:

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.- Objetivo.

Mediante las ayudas se pretende ayudar a las personas autónomas y pequeñas empresas de Areatza, a superar las dificultades que sufren como consecuencia de la entrada en vigor del estado de alarma.

Artículo 2.- Entidades beneficiarias

Podrán acceder a las ayudas aquellas personas autónomas y pequeñas empresas que a la fecha de entrada del estado de alarma cumplan las siguientes condiciones:

- a) Desarrollen su actividad económica en Areatza.
- b) Que desarrolle su actividad en hostelería y comercio al por menor

No podrán obtener la condición de persona beneficiaria las personas o entidades en quienes concurra alguna de las circunstancias enumeradas en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Artículo 3.- Hechos subvencionables.

a) Inversiones materiales derivadas de las necesidades surgidas como consecuencia de la pandemia COVID-19.

- a título orientativo, mamparas, distribuidores de geles hidroalcohólicos, termómetros digitales, elementos de seguridad elementos adecuación para terrazas, mobiliario, etc.



egokiak.

- Inbertsioak Areatzan egin beharko dira.

b) Publizitate-euskarrietan inbertitzea eta pertsonak edo establezimenduak prestatzeko edo homologatzeko gastuak.

4. artikulua.- Diruz lagundu daitekeen aldia

Alarma-egoeragatik jarduerak eten ziren egunetik 2020ko irailaren 30era arteko gastuak.

5. artikulua.- Laguntzen zenbatekoa.

Xedapen honetan jasotako onurak itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak dira enpresa onuradunaren kontabilitatearen ondorioetarako, ezarritako diruz laguntzeko moduko egitate eta gastuengatik.

Diru-laguntzen gehienezko kantitateak hauek izango dira:

a) Inbertsio materialak

- Egindako inbertsioen %45, gehienez 1.500 euro. Osasun-erregulazioen baldintzak gainditzen dituzten inbertsioetarako, %5eko igoera aplikatuko da.

b) Publizitate-euskarriak

- Inbertsioen %35era arte, gehienez ere 1.000 euro.

6. artikulua. Eskabideak aurkezteko lekua eta epea.

Eskabideak honela aurkeztu beharko dira:

- Udal-bulegoetan.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein tokitan.

- Las inversiones deberán ser realizadas en Areatza.

b) Inversiones en soportes publicitarios y gastos de formación u homologación de personas o establecimientos

Artículo 4.- Periodo subvencionable

Gastos comprendidos entre la fecha de suspensión de actividades por el estado de alarma y el 30 de septiembre de 2020.

Artículo 5.- Cuantía de las ayudas.

Los beneficios contenidos en la presente disposición son subvenciones no reintegrables a efectos de contabilidad de la empresa beneficiaria por los hechos y gastos subvencionables establecidos.

La cuantía máxima de las presentes ayudas será la siguiente:

a) Inversiones materiales

- Hasta el 45% de las inversiones realizadas hasta un máximo de 1.500 euros. Para aquellas inversiones que superen los requisitos de las regulaciones sanitarias se incrementará en un 5%.

b) Soportes publicitarios

- Hasta el 35% de las inversiones hasta un máximo de 1.000 euros.

Artículo 6. Lugar y plazo de presentación de solicitudes.

Las solicitudes deberán presentarse:

- En las dependencias municipales.
- En cualquiera de los lugares previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las administraciones públicas.



- Administrazio Elektronikoaren Bulegoaren bidez, www.areatza.net.

Informazioa eta eskabide-ereduak udalaren webgunean ere egongo dira eskuragarri (www.areatza.net).

Eskabideak aurkezteko epea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2020ko irailaren 30ean amaituko da.

7. artikulua. Eskabideen gehieneko kopurua.

Onuradun bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du.

8. artikulua.- Erantsi beharreko agiriak

Eskaera egiteko unean, honako dokumentazioa aurkeztuko da:

- NAN-a.
- Hala badagokio, ordezkaritza-dokumentu nahikoa.
- Jarduera nagusiaren deskribapena.
- Eskabidea, xedapen honi erantsitako ereduaren arabera beteta.
- Proforma faktura, onartutako aurrekontua edo kontratua.
- Egindako ordaintzen faktura edo antzeko froga-balioa duten egiaztagiriak.
- Diru-laguntza ordaintzeko banku-helbideratzearen fitxa, behar bezala beteta eta sinatuta.

Eskabideak ez badira erabat formalizatzen edo dokumentu honetan eskatutako agiriren bat falta bada, erakunde eskatzaileari eskatuko zaio 10 egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Halaber, adieraziko zaio, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, eta artxibatu egingo dela, dagokion ebazpena eman ondoren.

- A través de la Oficina de Administración Electrónica, www.areatza.net.

La información y los modelos de solicitud estarán también disponibles en la Web municipal (www.areatza.net).

El plazo de presentación de solicitudes se iniciará al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia, y finalizará el 30 de setiembre de 2020.

Artículo 7. Máximo de solicitudes por persona beneficiaria.

Cada entidad beneficiaria podrá entregar una única solicitud.

Artículo 8.- Documentación a adjuntar

En el momento de la solicitud, se aportará la siguiente documentación:

- DNI.
- En su caso documento suficiente de representación.
- Descripción de la actividad principal.
- Solicitud rellena de acuerdo al modelo adjunto a esta disposición.
- Factura proforma, presupuesto aceptado o contrato.
- Factura o documentos justificantes de valor probatorio similar, de los pagos realizados.
- Ficha de domiciliación bancaria para efectuar el abono de la subvención, debidamente rellena.

Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente documento, se requerirá a la entidad solicitante para que en el plazo de 10 días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.



Udalak, kasuak kasu, beste edozein agiri osagarri eska diezaioke erakunde eskatzaileari, aurkeztutako eskaeraren balorazio osoa egiteko.

Laguntza-aldian zehar, honako dokumentazioa aurkeztuko da:

- Fakturak eta egindako ordainketen banku-frogagiriak.

9. artikulua.- Diru-laguntzaren ordainketa.

Diru-laguntzaren ordainketa egindako gastuaren gainean egingo da.

Pertsona edo erakunde onuradunak, diruz lagundu daitezkeen egitatean jasotako egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu eta, behar bezala egiaztatuta ondoren, dagokion ordainketa egingo da.

10. artikulua.- Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Emandako laguntzak bateragarriak dira edozein erakunde publiko edo pribatuko emandakoekin, eta ezin izango da inola ere %100 baino gehiago izan diruz lagun daitezkeen egitate berberengatik.

Erakunde onuradunak Areatzako udalari jakinarazi beharko dizkio diruz lagun daitezkeen kontzeptu berengatik laguntzak.

11. artikulua.- Laguntzen publizitatea.

Xedapen honetan oinarrituta emandako laguntzak BAO n argitaratuko dira 2021eko lehen hiruhilekoa amaitu baino lehen.

12. artikulua.- Emakida-prozedura.

Laguntzak norgehiagoka askeko prozeduraren bidez esleituko dira.

Diru-laguntza norgehiagoka askean ematea, diru-laguntzaren xedearen arabera, COVID-19 pandemiaren

El Ayuntamiento, según los casos, podrá requerir a la entidad solicitante cualquier documentación complementaria que considere oportuna a efectos de la valoración de conjunto del proyecto presentado.

A lo largo del periodo de ayuda, se aportará la siguiente documentación:

- Facturas y justificantes bancarios de los pagos realizados.

Artículo 9.- Pago de la subvención.

El pago de la subvención se realizará sobre el gasto ya realizado.

La persona o entidad beneficiaria deberá presentar los justificantes recogidos en el hecho subvencionable, posteriormente a la debida comprobación, se procederá a efectuar el pago correspondiente.

Artículo 10.- Compatibilidad con otras ayudas.

Las ayudas concedidas son compatibles con las proporcionadas por cualquier organismo público o privado no pudiendo superar en ningún caso el 100%, por los mismos hechos subvencionables.

La entidad beneficiaria queda obligada a comunicar las ayudas por los mismos conceptos subvencionables al Ayuntamiento de Areatza.

Artículo 11.- Publicidad de las ayudas.

Las ayudas concedidas en base a la presente disposición serán publicadas en el BOB antes de finalizar el primer trimestre de 2021.

Artículo 12.- Procedimiento de concesión.

Las ayudas se adjudicarán por el procedimiento de libre concurrencia.

Se justifica la concesión en libre concurrencia en base al objeto de la subvención, la situación



ondoriozko larrialdi-egoeragatik eta alarma-egoeragatik justifikatzen da, baina horretarako arrazoiak dira, halaber, zaila dela aurkeztutako eskaeren artean lehentasun-ordena bat ezartzea ahalbidetuko duten balorazio-irizpide objektibo eta homogeenak ezartzea.

Lehia asketzat joko da eskabideak jaso ahala funtsak banatzeko erabiltzen den prozedura, eskabidearen Sarrera Erregistroaren lehentasunezko ordenari jarraikiz, betiere deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen badituzte eta aurrekontu-zuzkidurek horretarako aukera ematen duten arte.

13. artikulua.- Laguntzak emateko prozedura antolatu, bideratu eta ebazteko eskumena duten organoak.

Eskaerak udaleko ekipoek izapidetuko dituzte eta berariaz Alkatetzak ebaztiko ditu.

14. artikulua.- Aurrekontu-saila.

Aurkeztutako eskabideetatik bakarrik hautatu ahal izango dira aurrekontu-xedapenek ahalbidetzen duten beste.

Diru-laguntza horiek emateko indarrean dagoen aurrekontu-muga 20.000 eurokoa da 2020an, 2020ko aurrekontuko 231 733 10 "Inbertsioetarako Dirulaguntzak COVID-19" aurrekontu-partidaren kargura.

Deialdiko eskabide guztiak ebatzi ondoren gehieneko aurrekontu-muga lortzen ez bada, gastuaren baimena baliogabetzeko izapideak egingo dira, soberako zenbatekoarekin.

15. artikulua.- Ebazteko epea.

Espedienteak ebazteko gehieneko epea eskabideak aurkezteko epea amaitu eta

de urgencia y estado de alarma debido a la pandemia COVID- 19, la dificultad de establecer criterios objetivos y homogéneos de valoración que permitan establecer una prelación entre las solicitudes presentadas.

Se entiende como libre concurrencia el procedimiento en el que se distribuyen los fondos según se reciban las peticiones atendiendo al orden prioritario del Registro de Entrada de la solicitud siempre que reúnan todos los requisitos establecidos en la convocatoria y hasta que las dotaciones presupuestarias lo permitan.

Artículo 13.- Órganos competentes para ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión.

Las solicitudes serán tramitadas por los equipos del Ayuntamiento y serán resueltas expresamente por la Alcaldía.

Artículo 14.- Partida presupuestaria.

De las solicitudes presentadas solo podrán ser seleccionadas tantas como las disposiciones presupuestarias lo permitan.

El límite presupuestario vigente en el año 2020 para la concesión de las subvenciones mencionadas asciende a 20.000 euros con cargo a la partida presupuestaria 231 73310 "Inbertsioetarako Dirulaguntzak COVID-19", del presupuesto de 2020.

Si una vez resueltas todas las solicitudes de la convocatoria no se alcanzara el límite presupuestario máximo, se procederá a tramitar la anulación de la autorización del gasto por el importe sobrante.

Artículo 15.- Plazo de resolución.

El plazo máximo de resolución de los expedientes finalizará transcurridos tres



Areatzako
Udala
Ayuntamiento
de Areatza

hiru hilabete igarotakoan amaituko da.

16. artikulua.- Aplikagarria den araudia.

Oinarri hauetan aurreikusi ez diren alderdi guztietarako, aplikagarriak izango dira Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, bai eta, osagarri gisa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea eta haren izaeragatik aplikagarri izan daitekeen beste edozein arau-xedapen ere.

17. artikulua.- Zigor araubidea.

Arau-hausteen eta zigorren araubidea, azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren IV tituluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoa izango da.

meses desde la finalización del plazo de solicitudes.

Artículo 16.- Normativa aplicable.

Para todos aquellos aspectos no previstos en las presentes bases serán aplicables la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su reglamento de desarrollo, así como supletoriamente la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

Artículo 17.- Régimen sancionador.

El régimen de infracciones y sanciones, será el establecido en el Título IV de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas del País Vasco.